

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumenak Basogintzako Aholkularitza Kontseilua indartu du

Lehen bileran, Nafarroako Baso Agenda aurkeztu dute, Foru Komunitateko etorkizuneko baso-estrategiaren oinarriak biltzen dituen dokumentua

Larunbata, 2019.eko martxoak 16

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari Isabel Elizalde buru duen Basogintzako Aholkularitza Kontseilua bere osaera eta funtzionamendua aldatzearen alde agertu da gaur, sektoreko agente guztiak barne hartzearen. Helburua da aholkularitza-organo hori suspertzea, Foru Komunitateko baso-politikaren protagonista bihurtzearen. Gaur, Kontseiluak "Nafarroako Baso Agenda" ezagutu du, etorkizuneko baso-estrategiaren oinarriak biltzen dituen dokumentua.



Elizalde kontseilaria, parte-hartzaileekin batera bileran.

Baso Kontseilua 1996an sortu zen, eta urte hauetan guztietan biltzen joan da ia soilik baso-lanetarako laguntzen kanpainak aztertzeko eta baloratzeko. Modu horretan, sektorearentzat bestelako gai garrantzitsuak sortzen joan diren heinean, parte hartzeko foro espezifikokoak osatu dira; hala nola, Nafarroako Zuraren Mahaia eta Baso Biomazaren Batzorde Mistoa. Azken bilera duela zazpi urte egin zen.

Hori dela-eta, beharrezkoa ikusi da Kontseilua indartzea, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak egin beharreko lanean baso-agenteeek zuzenean parte hartzeko politika bultzatzeko, Nafarroako baso-politikaren organo protagonista bezala.

Horretarako, Foru Dekretuaren zirriborroarekin Kontseiluaren funtzioak eta osaera aldatzen dira, protagonismoa emanaz basoen jabeen nahiz sektoreko agente ezberdinei, elkargo profesionaletatik industrietara eta baso-enpresetara, baina baita hezkuntza- eta ikerketa-eremura ere.

Baso-agenda

Ingurumenak Baso Kontseiluaren aurrean aurkeztu ditu Nafarroako Baso Agenda osatzen duten dokumentuak, eta jendaurrean jarriko dira martxoaren amaieratik aurrera, Foru Gobernuaren Gardentasunaren Atarian.

Agenda Nafarroako aurreko baso-plana, 1998an onartutakoa, aztertu ondoren egin da, Nafarroako tokiko ekonomientzat oso garrantzitsua den sektoreak aurre egin beharreko eragozpen nagusiak aztertu ondoren. Proposamena sektoreko aktore ezberdinen, Nafarroako Gobernuaren eta GAN-NIK enpresa publikoaren artean egindako lanaren emaitza da.

Baso-agenda lanerako bost ardatzetan banatzen da: baso-gobernantza, aldaketa klimatikoa eta arrisku naturalak, baso-sektorearen sustapena, biodibertsitatearen kontserbazioa eta berrikuntza eta ezagutza. Ardatz horiek printzipio gidari batzuetan kokatzen dira, tartean aipatzekoak garapen iraunkorra eta mendien funtzionaltasun anitza.

Diagnostikoa egiten parte hartu dute Nafarroako basoen jabeen elkarteek eta Nafarroako baso-industrien eta -enpresen elkarteek, eta, horrela, arazo nagusiak detektatu dituzte, datozen urteetan horien gainean lan egiteko, irtenbide adostuak lortzearen. Besteak beste, ondorengo elementuak landu beharko dira: basoen inguruko araudia berrikustea, enpresa- eta industria-ehuna ziurtatzea, sektoreak finantza-instrumentu komunitarioetan izan behar duen garrantzia, zuraren erabilera sustatzea, zurgaiak ez diren aprobetxamenduen aprobetxamendua eta erregulazioa edo sektorea behar bezala hedatzea.

Baso-mailako Nafarroa

Foru Komunitateko lurraldearen %65a baso bezala katalogatuta dago. Azalera horretatik 450.000 hektarea inguru zuhaitziak dira.

Nafarroako mendien %60a toki-erakundeek dira, %30a jabe pribatuenak eta gainerakoak Nafarroako Gobernuarenak. Hori dela-eta, mendiak aberastasun-iturri garrantzitsua dira jabeentzat, baliabideen aprobetxamendu iraunkorraren bitartez: zura, ehiza, biomasa, paisaia, erabilera publikoa, perretxikoak, eztiak, e.a. Gainera, enpleguak sortzen dituzte, eta horietako asko toki-mailarekin lotuak.

Nafarroan, 400 bat enpresa daude baso-sektorearekin lotura dutenak, horietako asko txikiak baina ezinbestekoak gure mendiak behar bezala kudeatzeko.

Mendien garrantzia sozio-ekonomikoaz gain, basoko ekosistema ezberdinekin loturiko biodibertsitateak balio oso altua du, eta hori kontserbatu eta hobetu egin behar da lurraldearen kudeaketa oso egoki baten bitartez.